



Etxalarko Ibilbideak



“ORENBENTA-ATXURIA” PR NA-15

I.I.D.E.:

Luz.: 10,800 km

Des.: 550 m

Zail.: 2

Den.: 3 h.

Argarata-Basate errekaen arroila ingururatzeko duen ibilbide zirkularra, bizkarrez bizkar, Etxalarko Usategiak bisitatu eta Atxuria mendira igotzeko aukera ematen duena.

OHARRA: urrian, uso pasean, Nabarlatsako tartea itxia egoten da eta Lakaingaineko lepotik desbideratu behar da.

IBILBIDEA

- 0,000 km: **ETXALAR** (100 m), Antsolokueta auzoa eta herriko labaderoa. Bertako karrika zeharkatu, herri arkitektura apaineko etxeen artean (“Argarata-Santa Krutz” SL NA-5 ibilbidearekin bat egiten dugu).
- 0,300 km: Antsolokueta, bidegurutzeta. Eskuinetik, itzultzeko bidea eta SL NA-5 ibilbidea; ezkerretara jo eta, 50 metrora, karrika utzi eta berriz ezkerreko bidexkatik igo, bizkarreko malda pikotik. Norabide zuzenari eutsi bidegurutze guztietan.
- 1,425 km: Perugorrireneko Borda baserria (250 m) eta landetxea, mendi bizkarraren gainean eta 200 m lehenago eskuinetik borda baterako bidea pasa eta gero. Bide asfaltatua eta ikuspegi zabalak.
- 2,050 km: Lakain-Apezborroko bide asfaltatua, Armeako Borda baserria eskuinean pasa eta gero. Ezkerretik, Usategietako errepidera; eskuinetik, Orenbentako Atsedengunea. Asfaltoa gurutzatu eta zuzen segi, haritz zaharren artean, belagiak eta basoa mugatzen dituen bizkarreko bidetik.
- 2,750 km: Azkeneko baserri eta bordak pasa eta basoan sartuko gara, eskuinean hagin bat ageri delarik. Bidea bitan banatzen da: ezkerretik, Usategietarako bidea, malda gutxikoa; zuzen segi, bidea gero pikoagoa eta estuagoa egiten da, tarteka bidexka itxura hartuz eta Lakaingaina mendiko amildegia ipar aldetik inguratuz.
- 3,060 km: Lakaingaineko lepoa (410 m), mendi bizkarrean. SL NA-2 “Usategieta” ibilbidea gurutzatzen da; ezkerretik, 750 metrora, Etxalarko Usategiak daude (Oharra: urrian, uso pasean, bide honen eskuinaldetik jarraitu behar da Nabarlatsaraino, 4,340 P.K.an). Bizkarreko bidetik jarraitu, Ipar-ekialderantz.
- 3,455 km: Lakaingo lepoa (475 m), zabal eta belartsua, Etxalar (Nafarroa) eta Sarako (Lapurdi) muga. Lizaieratik datorren pista zabalarekin bat egiten dugu (GR-11 “Pirinioko Ibilbidea” eta SL NA-2 “Usategieta” ibilbidea). Pistatik jarraitu, norabidea aldatu gabe.
- 4,165 km: **NABARLATSAKO LEPOA** (474 m), ehiztari borda eta iturri bat pasa eta gero. 50. mugaria. Bidea bitan banatzen da: ezkerretik, Sarako usategietarako pista; zuzenean, bizkarretik, Atxuri mendirako bidea (ibilbidearen desbideraketa: ikus bukaeran). Mendi bizkarra utzi eta eskuinera jaitsi, baso aldera, iralekua zeharkatzen duen bidetik.
- 4,340 km: Haritzia eta bidegurutzeta. Eskuinetik, bidexka magaletik (SL NA-2 “Usategieta”); ezkerretik jaitsi, hariztian barna.
- 4,805 km: Basate-Argaratako erreka (350 m); zubitik zeharkatu eta maldan gora eskuinetik, basoan barna.
- 5,015 km: Maritoneko Borda baserria, ukuilu handiarekin. Ezkerretara jo, bide zabaletik; 100 m aurrerago, Irisarrigaraia baserria (kislabe eder bat duena) pasa eta luberrien artean jarraituko dugu.
- 5,685 km: Orenbentako pista. Ezkerretik, Orenbentako eta Irumugetako lepoetara; eskuinetik segi, belagien artean.
- 5,850 km: **ORENBENTAKO Atsedengunea** (445 m) eta iturria. Bidea bitan banatzen da: pista nagusiak zuzen segitzen du, Lakain-Apezborro auzo aldera (SL NA-X “Zentinel” ibilbidearen hasmenta); ezkerreko pistatik igo, Zentinel mendiko magalean. Hasieran basoberriak daude. Gero pagadian sartzen gara.
- 6,645 km: Ardi borda (505 m), ibilbidearen punturik altuenean. Bidea bitan banatzen da: ezkerretik GR-11 eta SL NA-X “Zentinel” ibilbideak utzi eta eskuinetara jo. Tarte zelaia Orizki mendiko ipar magaletik, ikuspegi zabalekin; kilometro batera, baserri-borda baten ondok pasatu eta maldan behera hasiko da.
- 8,100 km: Eskuinetik Mendiondoko Borda baserrietik datorren bidea sartzen zaigu. Norabideari eutsi.
- 8,725 km: Artzain borda pasa. Gero bidea bitan banatzen da. Ezkerretik, errekarako bidea; zuzen jarraitu, bizkarreko bide zabaletik.





Etxalarko Ibilbideak



- 9,325 km: Bidea bitan banatzen da. Pista nagusiak zuzen segitzen du, Etxalar-Zugarramurdiko errepiderantz; eskuinetara egin, pista harritsutik eta erreka bat zeharkatuz.
- 9,590 km: Eskuinetik Mendiondoko Borda baserriko pistarekin bat egin eta zuzen jarraitu. Metro batzuetara, Gartxineko Borda baserriaren ondotik pasatuko gara.
- 9,680 km: Bihurgune itxia eta bidea bitan banatzen da. Pista nagusia utzi eta zuzen segi, bizkarreko bidetik; ezkerretik, belagiak mugatzen dituen harresia. Ibilbidea gero estuagoa egiten da, hurrirtza nagusi den basoan sartu eta bidexka bihurtuz. Euriarekin, tarte irristakorra.
- 10,280 km: Zugarramurdiko bide zaharra (105 m), ezkerretik elkartzen dena (SL NA-5 "Argarata-Santa Krutz" ibilbidea). Bertatik jarraitu, zuzen, metro batzuetara Argaratako erreka harrizko zubia zeharkatu eta Etxalarko herrigunean sartuz. Metro batzuetara, auzoko karrikan, hasierako bidearekin bat egin (usatagietako igoera).
- 10,800 km: **ETXALAR** (100 m), Antsolokueta auzoa eta herriko labaderoa. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

Atxuria Nabarlatsatik

Luz.: 3,000 km Des.: 350 m Zail.: 3 Den.: 1½ h.

Igoera hau Nabarlatsako lepotik egiten da. Bertara Etxalartik (PR NA-15 segituz) edo Lizaietako lepotik (GR-11 eta SL NA-2 ibilbideetan barna) ailegatuko gara. Ibilbide tarte hau ez dago balizatua.

OHARRA: igoera honen azkeneko tartean Atxuriko hego magaleko amildegi harritsua gainditu behar da, oinarrizko prestakuntza fisikoa eta oreka eskatzen dituena; ez da komenigarria lainoarekin edo hezetan handiarekin ibiltzea bertan.

Ibilbidea

Nabarlatsako lepoko bidegurutzean (474 m), bizkarretik igotzen den bideari jarraitu (bat baino gehiago bada), Iguzki Gaina mendiko tontorretik gertu pasatuz. Maldan behera egin, harizti batean sartuz, eta Etxalar-Sarako 54. mugariaren ondoan, bidea bitan banatzen da: eskuinetik, Orenbentako lepora (5'); ezkerretik segi, Sarako lur eremutik. Iraleku bat bide zabaletik zeharkatu eta gero, berriz bitan banatzen da bidea: pista nagusia utzi eta eskuineko bide aldapatsutik jaitsi eta, beste mugari baten ondoan, Urioko erreka zeharkatuko dugu (440 m). Mendi larretan maldan gora zuzena egin, kislabe baten ondotik pasatuz, eta Beruetako Borda baserriko ardi bordara ailegatuko gara (490 m). Eskuinetik Irumugako lepora doan bide zelaia utzi eta bizkarreko malda bizia jarraitu, Sarako lezeetatik igotzen den bidea gurutzatu arte (Erne: horiz balizatutako bide honek igoera luze eta errazagoa egiten du, eta Atxuria hegoaldetik inguratu eta ekialdetik igotzen da). Harri konglomeratu handien eremura iritsi eta haien artean igoko gara, korridore batetik eta beti tontorreko amildegi nagusia ezkerretara utzita; kornisa moduko pasagunea zeharkatu eta bigarren korridorea gaindituko dugu. Mendi bizkarrera helduta, ezkerretara jo eta azkeneko igoera egin tontorrera iristeko (758 m).

